



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko uztailaren 17a

4. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko beharrezkoak diren neurriak susta daitezten premiatzen da, Legebiltzarreko Mahaian parekotasuna bermatzeko xedez. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsaria 2015eko ekitaldirako (4. or.).

—Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa. Deialdiko 2.1.d) oinarria aldatzea (4. or.).

—Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak eginga (5. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko beharrezkoak diren neurriak susta daitezten premiatzen da, Legebiltzarreko Mahaian parekotasuna bermatzeko xedez.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko uztailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko beharrezkoak diren neurriak susta daitezten premiatzen baita, Legebiltzarreko Mahaian parekotasuna bermatzeko xedez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko uztailaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1992ko azaroan, Europako ministro eta ministro ohien talde bat, denak ala denak emakumeak, Atenasen bildu zen, Emakumeei eta erabaki-hartzeari buruzko Europako Lehen Goi-bileraren kariatara, eta "Atenasko Adierazpena" izenpetu zuten. Adierazpenean, kritika zuzena egiten zioten Europako herrialde askotan emakumeak botere politikoko guneetatik baztertzeari, eta defizit demokratiko handiko errealitate gisa definitzen zuten. Horrela sortu zen "demokrazia paritaria" terminoa.

Parekotasuna eskatu behar zaio demokrazia ordezkatzaille bati, eragingarria izan ez denean herritarren erdien eskubideak egiazki bermatzeko. Baina kritikaz harago, parekotasuna sistema demokratikoari buruzko ikuskera berri bat ere bada, demokrazia ordezkatzaillea ordezteko asmorik gabe, demokrazia bera unibertsalizatzeko bitarteko egoki bat ere osatzen duena.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak parekotasuna ezarri zuen hauteskunde-zerrendak egiterakoan, bere 16. artikuluan xedatu baitzuen botere publikoek ahaleginak eginen dituztela "ardurako karguetarako egin behar dituzten izendapenetan eta hautaketetan emakumeen eta gizonen arteko presentzia orekatuaren printzipioa betetzeko".

Foru Komunitatearen kasuan, Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuna Sustatzeko azaroaren 28ko 33/2002 Foru Legeak labur-labur jasotzen du emakumeen parte-hartzea politikan; halatan, 2. artikuluan ezartzen du emakumeen presentzia alderdi politikoetako organo erabakitzaille eta betearazleetan berdintasunezkoa izatea sustatuko dela.

Lege horretan orobat ezartzen da administrazioko dokumentuen berrikuspena eginen dela, bertatik eta legedi indardunetik hizkera sexista ezabatzeke.

Foruaren Hobetzeari dagokionez, berdintasuna 44.18 artikuluan baizik ez da aipatzen, Nafarroaren eskumenen artean berdintasun-politikak aipatzen direnean.

Azkenik, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduak ez du behin ere aipatzen haren jardun guztietan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu beharra.

Argi dago gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna balio eztabaida ezina eta ekitaterako nahiz justizia sozialerako tresna bat dela dagoeneko. Gaur egun jada ez da auzitan jartzen berdintasuna, baizik eta berdintasuna nola egin eragingarri. Horregatik, harrigarria da Parlamentuaren Erregelamenduan ez egotea artikulua bakar bat ere bideratze aldera gizonen eta emakumeen bizitza politikoan baldintza beretan parte hartzea.

Iragan ekainaren 17an, Nafarroako Parlamentua eratu zen. Legebiltzarrak –pluralagoa eta emakumeen presentzia handiagoarekin– IX. legegintzaldia hasi zuen Mahaiaren izendapenarekin, non Parlamentua osatzen duten 7 talde politikoetatik 4 baitaude ordezkaturik. Halere, Mahaiaren osaerak, pluraltasun hori ez islatzeaz gain, ez du betetzen 3/2007 Legeak agindutako parekotasuna; izan ere, gizona gehiago Mahaiaren ehuneko 80 egiten dute, eta emakumeek, aldiz, ehuneko 20.

Legebiltzarrak maila politiko ezberdinetan funtsezko eginkizunak betetzen dituzten erakunde

politikoak dira, sistema demokratikoa zilegitzen laguntzen dutenak. Gizarte-egoera aldakorrek horiek aldatzen eta egokitzen laguntzen dute.

Erronka da, hortaz, gure parlamentuek eta gure gobernuek demokrazia paritarioaren helburuari erantzutea. Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak sei hilabeteko gehieneko epean sustatuko ditu bere erregelamendua aldatzeko beharrezkoak diren neurriak, parekotasuna ziurtatze aldera Legebiltzarreko Mahaiari, Parlamentuaren zuzendaritza organoa den aldetik.

Halaber, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan genero-hizkera berrikusiko dute, horretarako tresnarik egokiena baliatuta.

Iruñean, 2015eko ekainaren 24an

Eleduna: María Chivite Navascués

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsaria 2015eko ekitaldirako.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko uztailaren 3an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urtarrilaren 7ko erabakiz, ezarri zuen lehendakariaren 2015. urteko ordainsari gordina 67.620,70 eurokoa izanen zela.

Arestikoa ikusita, Nafarroako Parlamentuko lehendakariak proposatzen du Nafarroako Parlamentuko Lehendakari karguari dagokion urteko ordainsari gordina ehuneko 17 murriztea, kontuan hartuta, alde batetik, horrela betetzen dela ordainsariak murrizteko iragarritako konpromisoa, horiek egungo egoera ekonomikoari egokitzeko, eta, bes-

etik, Nafarroako Parlamentuko aurrekontuetan 11.495,54 euro aurreztuko direla.

Hori guztia aintzat hartuta, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. eta 37. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea, 2015eko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsaria ehuneko 17 murriztuko dela.

2. Ezartzea lehendakariaren 2015. urteko ordainsari gordina 56.125,16 eurokoa izanen dela.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko uztailaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzekoa.

Deialdiko 2.1.d) oinarria aldatzea

2015eko uztailaren 3ko Ebazpenaren bidez, Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak hein batean baiestea erabaki zuen María Luz Sanz Escudero andreak, CERMIN Desgaitasunak dituzten pertsonen Nafarroako entitate ordezkarien batzordearen izenean eta hura ordezkatuz, aurkeztutako berraztertze errekurtso hautazkoa, Lehendakaritza honen 2015eko maiatzaren 4ko ebazpenaren aurka, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu huts oposizio bidez betetzeko deialdia onetsi baitzuen (maiatzaren 15eko 93. zenbakiko NAO n eta 58. zenbakiko NPA On argitaratuta), eta, zehazki, haren 2.1.d) oinarriaren aurka; izan ere, B motako ibilgailuentzako gidabaimena izatea eska-

tzen du deialdian parte hartzeko baldintza gisa, eta hurrengo testua gehitu zaio oinarri horri:

“Desgaitasuna, urritasun organikoa edo gaixotasuna duten pertsonak salbu egonen dira betekizun honetatik, haren ondorioz, indarra duen araudiari jarraituz, B motako gidabaimen arrunta edo berezia lortzeko gauza ez badira; betiere, gaitasun ezari buruzko txostena, gidariei osasun-azterketak egiteko zentroak emana eta 170/2010 EDaren 19. artikuluan aurreikusia, erantsi beharko diote eskabideari; bestela, ziurtagiri baliokidea. Aipatu EDA gidarien gaitasun psikofisikoak egiaztatzeko azterketa zentroi buruzkoa da.”

Ondorio horietarako, Kontuen Ganberako lehendakariak 30 egun naturaleko beste epe bat

irekitzea xedatu du, aldaketa hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera, hark ukitutakoek, eta haiek bakarrik, hau da, desgaitasun hori dela medio, Ganberako auditoriako teknikari izateko hiru lanpostu betetzeko 2015eko maiatzaren 4ko ebazpenaren bidez deitutako oposizioan hasieran aurreikusitako epean

aurkezterik izan ez dutenek, eskabidea aurkezteko aukera izan dezaten 30 eguneko epe berri honetan, ezintasun hori frogatzen duen ziurtagiria erantsita.

Iruñean, 2015eko uztailaren 3an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko ekainaren 26an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko ekainaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko fiskalizazio txostena, 2013ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (6. or.).
- II. Lanaren helburua eta norainokoa (6. or.).
- III. oki sektore publikoaren antolaketa-egitura eta araudia (7. or.).

III.1. Antolamenduzko egitura (7. or.).

III.2. Toki sektore publikoa arrazionalizatzeko planteatu diren legegintza-neurriak (9. or.).

III.3. Araudia (9. or.).

IV. Toki entitateen fiskalizazio-jardueren laburpen-txostena (11. or.).

V. Toki sektore publikoaren finantza-egoera (13. or.).

V.1. Diru-sarrerak (13. or.).

V.2. Gastuak (14. or.).

V.3. Finantza-egoera (15. or.).

VI. Kontratazio administratiboa (16. or.).

VII. Nafarroako udaletan kontabilitate analitikoa ezartzeko proiektu pilotua (18. or.).

VIII. Ondorioak eta gomendioak (19. or.).

Eranskina: Nafarroako toki sektore publikoaren finantza-egoera 2013an

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Nafarroako toki sektore publikoari buruzko txostena egin da Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea betez. Izan ere, lege horretako 350.2 artikulua ezartzen duenez, Kontuen Ganberak urtero igorriko die txosten-laburpen bat Nafarroako Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari, Nafarroako toki entitateen arloan Kontuen Ganberak egindako fiskalizazio- eta kontrol-jarduerei buruzkoa.

Lana maiatzean egin zuen kontu-ikuskaritzako teknikari batek eta kontu-ikuskatzaile batek, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Txostena ezin izan da lehenago egin, Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak toki entitateek ekitaldi bakoitzeko kontu orokorra onesteko eta Gobernuari igortzeko ezarritako epeak eta informazio horren tratamenduaren konplexutasuna direla-eta. Halere, nabarmendu nahi dugu Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak ahalegin handia egin duela dokumentazioaren tratamenduari eta bidalketari dagokienez; horri esker, aurreko ekitaldietan baino hilabete batzuk lehenago egin ahal izan da txosten hau.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako toki entitateetako, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiko eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. LANAREN HELBURUA ETA NORAINOKOA

Lanaren helburuak hauexek dira:

- Nafarroako toki entitateen esparruan Ganbera honek egindako fiskalizazio eta kontrol jarduren 2013ko ekitaldiko txosten-laburpena aurkeztea.
- Nafarroako toki entitateen 2013ko finantza egoeraren eta antolamenduaren ikuspegi bat ematea Parlamentuari, administrazio publikoei eta Nafarroako gizarteari.
- Toki entitate hauen kudeaketa hobetzeko gomendioak proposatzea Nafarroako Parlamentuari, Gobernuari eta toki entitateei.

Nafarroako toki entitateen 2013ko ekitaldiko kontu orokorra da lanaren norainokoa. Ondokoek osatzen dute kontua:

- Udalen kontuak nahiz haren erakunde autonomoenak.
- Kontzeju, mankomunitate eta batasun tradizionalenak.
- Merkataritzako elkarteak, horien kapitala oso-osorik toki entitateena bada.

Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak gaiari buruz egindako eta Ganbera honi igorritako txostenean oinarritzen dira toki sektore publikoaren finantza-egoerari buruzko ondorioak.

Finantza-egoerari buruzko azterketan, hurrengo entitateak ez dira kontuan hartu, zeren eta Toki Administrazioari buruzko txostena egiteko garaian –2015eko maiatzaren 29a– Foru Administrazioari 2013ko kontu orokorra igorri gabe baitzeuden:

- 272 udaletatik 10: Arano, Biurun-Olkotz, Iguzkitza, Lantz, Ledea, Petilla de Aragón, San Martin Unx, Esa, Zubieta eta Zugarramurdi. Udal horiek 2.383 biztanle dituzte guztira; horrek populazio osoaren ehuneko 0,4 egiten du. Toki Administrazioako Departamentuaren txostenean jasota ageri den moduan, Lantzek eta Ledek txostena egin den epean aurkeztu dituzten beren kontuak, baina datu horiek ez dira bertan jaso.

- 348 kontzejuetatik 62: Aitzoain, Aizpun, Allotz, Amillao, Anotz, Antxoritz, Aramendia, Ardatz-Iltzagaondoa, Arlegi, Arraiza, Arre, Artatza, Artazkotz, Artika, Asterain, Ageza, Azpa, Azketa, Baraibar, Biurun, Bizkarreta-Gerendiain, Etxague, Elkarte, Eltso, Eraul, Erro, Esnotz, Etxarri, Gazolat, Goñi, Gorrontz-Olano, Iguzkitza, Iltzarbe, Iribas, Izkue, Labeaga, Lakabe, Lapoblación, Larraiotz, Lizasoain, Mugiro, Muniain-Gesalatz, Muru-Asterain, Nabatz, Olaitz, Olatz-Subitza, Ol-

kotz, Olo, Oloritz, Oltza, Paternain, Senosiain, Soltxaga, Sorauren, Torres, Ubago, Undio, Untzu, Zabal, Zarikiegi, Zubiri eta Zulueta. Kontzeju horien populazioa 10.790 pertsonakoa da, eta Nafarroako kontzejuen guztizko populazioaren ehuneko 27 egiten du.

- 18 batasunetatik bat: Doneztebe, Elgorriaga, Ituren eta Zubietako Administrazio Zerbitzuen Batasuna.

- Jarduera duten 60 mankomunitateetatik lau: Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Araxes Garaiko Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea eta Auñamendi Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.

III. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA ARAUDIA

III.1. ANTOLAMENDUZKO EGITURA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean ezarritakoarekin bat antolatzen da toki sektore publikoa.

Udalak dira lurralde-antolamenduaren oinarritzko toki entitateak. Toki entitatearen mailakoak dira, halaber:

- Kontzejuak: udalaren dermioaren barrenean kokaturiko toki entitate dira, hark baino populazio eta lurralde esparru txikiagoa dutenak.

- Herri-ondasunen titular edo administratzaile diren korporazio tradizionalak. Bardeako Elkartea, Aezkoako Elkartea, Erronkaribarko Mankomunitatea eta Zaraitzuko Unibertsitatea.

- Mankomunitate edo zenbait udalen elkarteak, obrak elkarrekin egin eta haien eskumenekoak diren zerbitzu jakin batzuk emateko.

- Udal-elkarteak, dituzten ezaugarriengatik eskatzen dutenak zerbitzu komunak ematea.

- Administrazio-barrutiak, 5.000 biztanlera iristen ez diren landa inguruneko udalek borondatez osatutakoak.

Honakoa da toki entitateen kopurua, 2013ko abenduaren 31n, aurreko urteetako toki entitateen kopuruarekin alderatuta:

Toki entitateak	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Udalak	272	272	272	272	272	272 ⁽¹⁾
Kontzejuak	352	350	351	348	348	348
Mankomunitateak	66	65	66	66	65	65 ⁽²⁾
Tradiziozko batasunak eta udal batasunak	18	17	18	18	18	18
Guztira	708	704	707	704	703	703

(1) 60 udal konposatuak dira


(2) 5 mankomunitatek ez dute jarduerarik

2008tik 2013ra doan aldian, honakoak dira toki entitateen menpeko organismoak (erakunde autonomoak eta enpresa publikoak), tokiko fundazio publikoak eta partzuergoak:

Entitatea	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Erakunde autonomoak	73	67	67	66	66	65
Enpresa publikoak	38	41	42	45	48	50
Fundazio publikoak	13	9	9	9	9	9
Partzuergoak	16	16	18	17	17	17
Guztira	140	133	136	137	140	141

2012arekin alderatuta, 2013an desagertu zen Cintruenigoko Udalaren Uren Batzarra (erakunde autonomoa), eta bi enpresa sortu ziren Olaztin eta Lekunberrin.

Hona Nafarroako toki sektore publikoaren egitura 2013ko abenduaren 31n:



2013ko urtarrilaren 1ean, Nafarroako 272 udalerrien biztanleria, errolda ofizialeko datuen arabera 644.477 biztanlekoa, honela zegoen banatuta:

Biztanle-tartea	Zenbat kopurua	Udalerriak guztizkoaren gainean (%)	Biztanleria	biztanleriaren %, guztizkoaren gainekoa
<100	38	14,0	2.369	0,4
100-199	53	19,5	7.590	1,2
200-499	59	21,7	18.748	2,9
500-999	37	13,6	26.714	4,1
1.000-1.999	25	9,2	34.765	5,4
2.000-2.999	23	8,5	58.205	9,0
3.000-4.999	15	5,5	57.711	9,0
5.000-9.999	12	4,4	87.717	13,6
10.000-24.999	8	2,9	118.334	18,4
25.000-50.000	1	0,4	35.369	5,5
50.000 baino gehiago	1	0,4	196.955	30,6
Guztira	272	100	644.477	100

Nafarroako udalen ehuneko 68,7k (187 udal) 1.000 biztanle baino gutxiago dituzte. Nafarroako biztanleen ehuneko 55 lruñerrian daude eta guztizkoaren ehuneko 30,6 lruñean bizi dira.

Ganbera honek bere txostenetan behin eta berriro adierazi bezala, biztanle-kopuru txikiak ditzuten giza baliabide eta finantza-baliabide mugatuak dituzte eta ez dute administrazio-egitura egokia eta nahikoa beren eskumenak kudeatzeko, eta horrek zaildu egiten du zerbitzuak merke, eraginkortasunez eta kalitatez ematea.

III.2. TOKI SEKTORE PUBLIKOA ARRAZIONALIZATZEKO PLANTEATU DIREN LEGE-GINTZA-NEURRIAK

- 2012ko urriaren 24an, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeko Foru lege proiektua onetsi zuen, honako helburu hauekin: udal zerbitzuen kudeaketa ekonomikoa eta prestazioa arrazionalizatzea eta hobetzea; ahal den berdintasun handiena lortzea herritarrek zerbitzuak jasotzeko dagokionez eta Nafarroako Toki Administrazioaren mapa administratibo eta funtzionala lurraldearen ikuspuntutik antolatzea.

Honakoak dira helburu horiek lortzeko proposatutako neurrietako batzuk:

a) Udalak beren borondatez batu daitezen eta zerbitzuak emateko udalen arteko egituretan sar daitezen sustatzea.

b) Zerbitzu administratiboen batasunak sortzea, idazkaritza eta kontu-hartzailatza eginkizunak bete ditzaten.

c) Interes orokorreko sei mankomunitate sortzea, egun daudenak biltzeko.

d) Honako berezitasunak dituzten kontzejuei eustea. Kontzejuak azkenduko dira, beste arrazoi batzuen artean, 1.000 biztanletik gorako kontzeju bateko populazioa kide den udal osokoa baino handiagoa denean; hauteskunde-prozesuetan hautagai-zerrendarik aurkezten ez denean; bete-behar administratiboak betetzen ez dituztenean; eta 16 biztanle baino gutxiago dituztenean. Ezin izanen da kontzeju berririk sortu.

e) Dauden 11 batasun tradizionalak laura murriztea.

- Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, 2013ko irailaren 19an, Toki Administrazioa berrantolatu, sinplifikatu, modernizatu eta demokratizatzeko oinarriak ezarri zituen Foru Lege proposamena onetsi zuen. Bertan, honako entitateak jasotzen dira, besteak beste: administrazio-barrutiak, interes orokorreko mankomunitateak eta Iruñeko metropolialdea.

Bi legegintza-proposamen horiek aurreikuspen bat biltzen dute: toki entitateak finantzatzeko eredu berri bat onestea.

Bai Gobernuak 2012an onetsitako lege proiektuak, bai Parlamentuak 2013an onetsitako lege proposamena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Batzordeak 2013ko urriaren 29an onetsitako parlamentu-lantaldean eztabaidatu ziren.

2014ko ekainaren 13an, Parlamentuak erabaki zuen lantaldearen jarduna sei hilabetez luza-tea. Izan ere, aurreikusitakoaren arabera, 2014ko ekainaren 16an amaitu behar zituen bere lanak. Lantalde hori akordiorik lortu gabe bukatu zen; hortaz, onetsi gabe jarraitzen du Nafarroako toki entitateak berrantolatzeko foru legeak.

- 2013ko abenduaren 31n, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak hartu zuen indarra. Lege horren bigarren xedapen gehigarriak Nafarroako Foru Komunitateari aplikatzekoak zaizkion berezitasun batzuk arautzen ditu, zerbitzuak emateari dagokionez.

- 2014ko abenduaren 2an, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen 23/2014 Foru Legea onetsi zuen. Foru lege horren xedea da Nafarroako toki entitateen eskumenak mantentzea eta udal-esparruko beste arlo batzuk, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak uki ditzakeenak, arautzea. Lege horrek, dena den, ez ditu jorratzen toki entitateen berrantolamenduaren alderdirik garrantzitsuenak.

III.3. ARAUDIA

Ondoko lege- eta erregelamendu-xedapenak dira, funtsean, Nafarroako toki entitateek 2013an bete behar zituztenak:

- Toki administrazioaren eta -araubidearen arloan eta ekonomia-, aurrekontu- nahiz kontabilitate-araubidearenean aplikatzekoak dira:

a) 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.

b) 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituena

c) 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.

d) 270/1998 Foru Dekretua, 271/1998 Foru Dekretua, 272/1998 Foru Dekretua eta 273/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoak denak, aurrekontuei eta gastu publikoari, aurrekontuen egitu-

rari, Nafarroako Toki Administrazioarentzat Kontularitza Orokorreko Instrukzioari eta Kontularitza Bakunari dagokiena, hurrenez hurren.

e) Kontabilitate publikoaren plan orokorra, toki-administrazioari egokitua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioak 1990eko uztailaren 17ko aginduaz onetsitakoa.

f) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzkoa.

g) 27/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.

h) 28/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duena, 2012rako eraginarekin, erosahalmenaren galera dela-eta.

i) 4/2012 Errege Lege Dekretua, otsailaren 24koa, toki-administrazioentzako entitateen hornitzaileei ordaintzeko finantzaketa-mekanismo bat ezartzeko informazio-betebeharrak eta beharrezko prozedurak ezartzen dituena.

j) HAP/2105/2012 Agindua, urriaren 1ekoa, Aurrekontu-egonkortasun eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan informazioa emateko aurreikusitako betebeharrak garatzeko.

k) 2007ko aurrekontuaren betetze-oinarriak.

l) Zergak eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantzak eta akordioak.

- Kontratazio administratiboaren alorrean, ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, kontratu publikoari buruzkoa, otsailaren 14ko 1/2007 Foru Legean zehaztutako berezitasunekin.

- Langileen arloan, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duena, bai eta haiek garatzeko xedapenak ere.

- Hirigintzaren arloan, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legea.

- Diru-laguntzen arloan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako erregelamendua.

Honakoak dira toki sektore publikoari 2013an aplikatzekoak zaizkion arauetako batzuk:

4/2013 Foru Legea, otsailaren 25ekoa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen VI. titulua aldatzen duena.

10/2013 Foru Legea, martxoaren 12koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

8/2013 Errege Lege-dekretua, ekainaren 28koa, administrazio publikoen berankortasunaren aurkako neurri urgenteei eta finantza-arazoak dituzten toki entitateei laguntzeari buruzkoa.

25/2013 Foru Legea, uztailaren 2koa, erosahalmenaren galera dela-eta 2012rako eraginarekin aldi baterako osagarri pertsonal bat sortzen duen abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legea aldatzen duena.

31/2013 Foru Legea, urriaren 31koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 132. artikulua eta II. tituluko VIII. kapitulua aldatzen dituena.

37/2013 Foru Legea, azaroaren 28koa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.

9/2013 Lege Organikoa, abenduaren 20koa, sektore publikoan merkataritza-zorra kontrolatzeari buruzkoa.

17/2012 Legea, abenduaren 27koa, Estatuaren 2013rako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

25/2013 Legea, abenduaren 27koa, sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatzeari eta fakturen kontabilitate-erregistroa sortzeari buruzkoa.

27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoa.

IV. TOKI ENTITATEEN FISKALIZAZIO-JARDUEREN LABURPEN-TXOSTENA

Nafarroako Kontuen Ganberak ondoko 13 udalerrien 2013ko kontu orokorraren finantzen eta legezketasunaren arauzkotasunari buruzko fiskalizazioa egin zuen: Antsoain, Barañain, Berriozar, Burlata, Eguesibar, Lizarra, Uharte, Orkoien, Iruña, Tafalla, Tuter, Atarrabia eta Zizur Nagusia.

Ondoren, aurreko toki entitateei buruzko datu batzuk emanen ditugu:

Udalerria	Txostenaren jaulkipen data	Biztanleria erroldatua 2013-01-01	Aitorturiko betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Menpeko entitateak			
					Era-kunde autonomoak	Enpresa	Fundazioa	Enpresa-ente publikoa
Antsoain	2.9.2014	10.976	7.595.742	7.062.523	1			
Barañain	9.10.2014	21.120	13.927.004	14.098.219	2		1	
Berriozar	10.12.2014	9.605	6.514.713	6.337.135		1		
Burlata	19.12.2014	18.248	15.904.220	15.213.879	2	3		
Eguesibar	30.12.2014	18.414	9.201.715	9.527.151		3		
Lizarra	2.12.2014	13.947	10.363.348	11.320.557	1	1		
Uharte	25.2.2015	6.781	7.092.006	6.953.744	2	1	1	
Orkoien	18.3.2015	3.716	3.529.746	3.290.631		1		
Iruña	26.11.2014	196.955	201.281.730	197.055.145	2	5	1	
Tafalla	15.10.2014	11.201	10.823.059	10.854.596	3	1		
Tuter	20.10.2014	35.369	33.539.318	35.431.013	1		2	
Atarrabia	6.10.2014	10.308	8.074.057	8.356.112				
Zizur Nagusia	10.11.2014	14.120	11.355.310	11.073.146	3			
Fiskalizatutako udalerriak, guztira		370.760	339.201.968	336.573.851	17	16	5	1

Fiskalizatutako entitateen diru-sarrerek Nafarroako toki sektore publikoaren diru-sarrera guztien ehuneko 46 egiten dute, eta gastuek, berriz, ehuneko 47.

Udalerrri horien artean 17 erakunde autonomo, 16 enpresa publiko, bost fundazio eta enpresa-ente publiko bat dituzte.

Arauzketasun-fiskalizazioen helburua honako gai hauei buruzko iritzia ematea izan zen:

- Ea toki entitatearen 2013ko ekitaldiko kontu orokorrak bere alderdi nagusienetan behar bezalako irudia erakusten zuen, 2013ko abenduaren 31n, ondareari, ekonomia- eta finantza-egoerari, aurrekontuaren likidazioari eta emaitza ekonomikoari buruz, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoaren esparruan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideei jarraituz.

- Ea 2013ko ekitaldian legezketasuna bete ote den.

- Entitate bakoitzaren egoera finantzarioa 2013ko abenduaren 31n.

- Aldiro egindako auditorietan, 2012ko ekitaldiari buruzko txosteneko gomendioen jarraipena.

Fiskalizazioaren emaitzak kasuko txostenean jaso ziren, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitaratu.

Fiskalizatutako 13 toki entitateetan, 2013ko kontu orokorrari buruzko iritzia aldekoa izan zen, salbuespenak salbuespen. Hona salbuespen nagusiak:

- Eguneratu gabeko inbentarioa (9 entitate).
- Ez daude erregistratuta funtzionarioen pentsio-ereduetatik ondorioztatutako betebeharrak aktuarialak (berariazko aurreikuspen-sistema duten 3 entitateak).

Legezkotasuna betetzeari dagokionez, 13 udaletatik 11tan eman zen aldeko iritzia, eta gainerako bietan ere iritzia aldekoa izan zen, baina salbuespenekin; kasu batean, salbuespena zen ez zirela aurkeztu sozietate baten kontuak eta zalantza batzuk zeudela ikerketa batzorde baten jarduketan ondorio ekonomikoei buruz eta Ganberaren txosten bati buruz; bestean, sozietate batetik langile bat kaleratu izanaren kalte-ordainari buruzkoa zen salbuespena.

13 udal horien erregularatasunaren fiskalizazioaz gain, txosten bat egin zen Leozko Udalaren azterketa mugatu bat egiten zuena eta 2013ko datuak aztertzen zituena.

Ganbera honen gomendio nagusiak honako hauek izan ziren 2013ko fiskalizazio txostenetan:

Aurrekontu orokorra eta kontu orokorra

- *Aurrekontu orokorra kasuan kasuko ekitaldia hasi baino lehen onestea (12 entitate).*
- *Kontu orokorra hurrengo ekitaldiaren irailaren 1a baino lehen onartzea (4 entitate).*

Ibilgetua eta inbentarioa

Ondasun eta eskubideen inbentario gaurkotu bat onestea; hura kontrolatu eta artxibatzeako sistema bat ezartzea; eta hura bateratzea kontabilizatutako ibilgetuarekin (9 entitate).

Langileak

Plantillako lanpostuak beharizan errealean arabera egokitzea (5 entitate).

Kontratazio administratiboa

Kasuko kontratazio espedienteak izapidetzea, urteko gastuaren bolumena aurrez kalkula daitekeenean (6 entitate).

Emandako diru-laguntzak

Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onestea (4 entitate).

Hirigintza

- *Planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen arabera egokitzea (7 entitate).*
- *Lurzoruaren Udal Ondarea eratzea eta kudeatzea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik, eta Udalaren Lurzoru Ondarearen Erregistroa sortzea (6 entitate).*

V. TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-EGOERA

Toki sektore publikoaren 2013. urteko finantza-egoeraren azterketa Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiaren txosteneko lehenengo atalean oinarrituta dago. Ondoren, toki entitateen (udalak, kontzejuak, mankomunitateak eta batasun tradizionalak) informazio bateratua ematen dugu:

V.1. DIRU-SARRERAK

Hona toki sektore publikoaren diru-sarreraren aurrekontu-betetzea:

Diru-sarrerak

(euroak, milioitan)

Kapitulua	Behin betiko aurreikuspenak	Diru-sarrerak (2013)	Guztizkoaren gaineko ehunekoa	Betetakoa (%)	Diru-sarreraren aldea, 2013/12 (%)
1 Zuzeneko zergak	171,87	183,01	24,84	106,48	7,09
2 Zeharkako zergak	18,73	15,29	2,08	81,64	-32,44
3 Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	145,54	144,86	19,66	99,54	1,02
4 Transferentzia arruntak	292,95	290,70	39,46	99,23	0,32
5 Ondare bidezko diru-sarrerak	44,79	45,57	6,19	101,73	3,31
Diru-sarrera arruntak	673,88	679,43	92,22	100,82	1,29
6 Inbertsioen besterentzea	13,15	8,03	1,09	61,02	21,26
7 Kapital-transferentziak	84,56	42,89	5,82	50,72	-48,38
Kapitaleko diru-sarrerak	97,71	50,92	6,91	52,11	-43,24
8 Finantza-aktiboen aldaketa	46,31	2,71	0,37	5,85	-42,02
9 Finantza-pasiboen aldaketa	23,67	3,68	0,50	15,55	-82,14
Finantza-eragiketetako diru-sarrerak	69,98	6,39	0,87	9,13	-74,73
Diru-sarrerak guztira	841,57	736,74	100	87,54	-6,24

Diru-sarreraren 2013ako behin betiko aurreikuspenek 841,57 milioi euro egiten dute, eta ehuneko 88ko betetze-maila dute. Diru-sarrera arruntan kasuan aurreikusitakoaren ehuneko 101 bete ziren bitartean, nabarmentzekoa da eragiketa finantzarioetatik heldu diren diru-sarreraren eta kapitaleko diru-sarreraren betetze txikia; izan ere, ehuneko 9 eta ehuneko 52 bete ziren, hurrenez hurren.

2013ko ekitaldian, toki sektore publikoko entitate guztien diru-sarrerak 736,74 milioi egin zuten; horietatik, ehuneko 92 diru-sarrera arruntak izan ziren, batez ere transferentzia arruntetatik eta zergetatik heldutakoak. Kapitaleko diru-sarrerak diru-sarrera guztien ehuneko zazpi dira eta gainerako ehuneko bat finantza-eragiketen bidezko diru-sarreretatik heldu da.

Diru-sarreraren ehuneko 84 udalei dagokie; ehuneko 14 mankomunitateei eta ehuneko bi kontzejueri.

2012ko diru-sarrerak baino ehuneko sei txikiagoak izan ziren 2013ko diru-sarrerak, nagusiki kapital- eta finantza-eragiketetako diru-sarrerak jaitsi izanaren ondorioz: ehuneko 43 eta 75, hurrenez hurren.

V.2. GASTUAK

Hona gastuen laburpen-taula:

Kapitulua	Gastuak				
	Behin betiko kredituak	Gastuak 2013	Guztizkoaren gaineko gastuak	% betea	Aldea (%) gastuak 2013/12
1. Langile-gastuak	264,32	255,37	35,47	96,61	4,80
2 Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	276,40	255,89	35,55	92,58	0,71
3. Finantza-gastuak	9,73	7,40	1,03	76,13	-28,33
4. Transferentzia arruntak	73,06	68,45	9,51	93,69	-2,27
Gastu arruntak	623,50	587,11	81,55	94,16	1,55
6. Inbertsio errealak	162,01	88,92	12,35	54,88	-26,22
7. Kapital-transferentziak	10,68	9,28	1,29	86,86	-30,87
Kapitaleko gastuak	172,70	98,19	13,64	56,86	-26,68
8. Finantza-aktiboen aldea	6,67	4,31	0,60	64,73	28,80
9. Finantza-pasiboen aldaketak	31,34	30,29	4,21	96,63	4,51
Finantza-eragiketen gastuak	38,01	34,60	4,81	91,03	7,03
Gastuak, guztira	834,21	719,90	100	86,30	-3,29

2013ko ekitaldirako behin betiko kredituek 834,21 milioi eurokoak izan dira, eta ehuneko 86ko betetze-maila izan dute. Gastu arruntek ehuneko 94 betetze maila dute; finantza-eragiketengatik gastuek, berriz, ehuneko 91koa. Aitzitik, kapitaleko diru-sarreraren betetze maila behin betiko kredituen ehuneko 57koa izan zen.

Toki sektore publikoko gastuek 2013an 719,90 milioi euro egin zuten; horietatik, nabarmentzekoak dira ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindakoak, bai eta langileriaren arlokoak ere, zeinek aitortutako gastu guztien ehuneko 35 baino apur bat gehiago egiten baitute. Inbertsioak gastuen guztizkoaren ehuneko 12 dira.

Gastu horien sailkapen funtzionalari erreparatuz gero, ehuneko 15,65 gizarte babesari eta segurantzari dagozkio; ehuneko 15,21, etxebizitzari eta hirigintzari; ehuneko 14,27, erkidegoaren ongizateari; ehuneko 12,72, kulturari eta kirolari; ehuneko 8,61, hezkuntzari; eta gainerakoa honako sailen artean banatzen da, besteak beste: segurtasun eta babes zibila, finantza-zama eta finantza-administrazioa eta gizarte sustapena. 2012ko datuekin alderatuta, nabarmena da etxebizitzara eta hirigintzara bideratutako gastuaren jaitsiera, zeina ehuneko 18koa izatetik –garrantzi erlatibo handiagoko gastua– ehuneko 15,21ekoa izatera igaro baita.

Gastuen ehuneko 84 udalei dagokie, ehuneko 14 mankomunitateei eta ehuneko bi kontzejuei. Ehuneko horiek banatuta daude diru-sarrerak toki entitate horien artean banatzen diren modu bertsuan.

2013an aitortutako gastuak ehuneko hiru jaitsi ziren 2012koen aldean, batez ere kapital-gastuak eta finantza-gastuak jaitsi izanaren ondorioz.

V.3. FINANTZA-EGOERA

Ondoren, toki entitateen finantza-egoeraren hainbat adierazleren bilakaera erakusten da, 2009tik 2013ra:

(euroak, milioitan)

Adierazleak	2009	2010	2011	2012	2013
Diru-sarrerak, guztira	1.099,50	953,24	864,83	785,77	736,74
Gastuak, guztira	1.082,61	956,57	841,12	744,40	719,90
Tributu bidezko diru-sarrerak	335,84	338,78	347,63	336,92	333,16
Transferentzien bidezko diru-sarrerak	559,41	393,73	306,70	372,84	333,59
Funtzionamendu gastuak	589,03	592,57	594,12	567,81	579,71
Inbertsioetan egindako gastua	428,30	298,03	191,42	120,51	88,92
Aurrezki gordina	79,01	81,34	85,49	102,98	99,72
Finantza-karga	36,59	36,86	39,23	39,31	37,69
Aurrezki garbia	42,42	44,48	46,26	63,67	62,03
Zorpetze-maila	5,45%	5,42%	5,76%	5,86%	5,55%
Zorpetzearen muga	11,77%	11,95%	12,56%	15,35%	14,68%
Zorpetze-ahalmena	6,32%	6,53%	6,80%	9,49%	9,13%
Zor bizia	383,51	409,90	401,24	400,42	377,47
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	102,46	90,10	104,85	132,86	138,68
Emitza ez-finantzarioa	-37,59	-21,10	28,97	48,42	45,04

2012arekin alderatuta, diru-sarrerak eta gastuak ehuneko sei eta ehuneko hiru jaitsi ziren guztira; jaitsiera-zenbateko horiek, dena dela, ehuneko 30 baino apur bat handiagoak dira 2009arekin alderatuta.

Orobat nabarmendu behar da transferentzien bidezko diru-sarrerak ehuneko hamaika jaitsi zirela 2012aren aldean, eta ehuneko bederatzi 2009aren aldean. Inbertsio-gastuek 89 milioi euro egin zuten; hori da, hain zuzen ere, 2009arekin eta 2012arekin alderatuz gero gehien jaitsi den gastua: ehuneko 79 eta 26.

2013an, toki sektore publikoak baliabide arruntetan 62,03 milioi euroko aurrezki garbia izan zuen, behin funtzionamendu gastuak eta zorraren finantza-zama ordainduta. 2012an lortutakoa baino apur bat txikiagoa da aurrezpen hori, baina nabarmendu beharra dago arestiko hiru ekitaldietakoa baino nabarmen handiagoa izan dela ekitaldi horretan. Halaber, kontuan hartu behar da urte horretako abenduko aparteko ordainsaria kendu izana izan zela 2012an nabarmen igo izanaren arrazoietakoa bat.

Nafarroako toki entitateek 2013an daukaten zor bizia 377,47 milioi eurokoa zen, ehuneko 3,81eko batez besteko interes tasarekin; batez besteko 13,26 urte gelditzen da epearen mugaguna iristeko. 2012arekin alderatuta, ehuneko sei jaitsi da.

Zorpetze-maila, 2013an, diru-sarrera arruntan ehuneko 5,55ekoa zen, eta zorpetze-ahalmena, berriz, ehuneko 9,13ra bitartekoa.

Zorraren ehuneko 90 udalei eta haien erakunde autonomoei dagokie; ehuneko zazpi mankomunitate eta udal-batasunei, eta gainerakoa kontzejuei.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, aurreko ekitaldietan sortutako baliabideen gaindikina dena, 138,68 milioi eurokoa zen 2013an.

Azkenik, 2013an, toki sektore publikoak, aurrekontu-egonkortasunaren eta nazio-kontabilitatearen eraginetarako 30,13 milioi euroko finantzaketa-ahalmena zeukan, kasuko doikuntzak barne, eta bere diru-sarrera arruntan ehuneko 59,69ko zor bizia.

VI. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA

Atal honetan, toki entitateek eta haien menpeko enteeek 2013an esleitutako kontratuak azterzen ditugu, Kontratazio Publikorako Batzordeak kudeatutako Kontratuen Erregistroan dagoen informazioaren arabera.

Hona toki entitateek esleitutako kontratuen oinarrizko datuak:

Kontratu-mota	Udalak		Batasunak		Mankomunitateak		Kontzejuak		Guztira	
	Kopurua	Esleitutakoaren zenbatekoa	ZK.	Esleitutakoaren zenbatekoa	ZK.	Esleitutakoaren zenbatekoa	ZK.	Esleitutakoaren zenbatekoa	ZK.	Esleitutakoaren zenbatekoa
Obrak	105	14.385.374	1	711.857	12	9.046.936			118	24.144.167
Laguntza	128	12.291.349			7	1.161.018	1	53.000	136	13.505.367
Zerbitzu-emakidak	22	8.006.990							22	8.006.990
Obra-emakida	1	229.667							1	229.667
Hornidura	29	2.401.214			9	1.127.616			38	3.528.830
Guztira	285	37.314.594	1	711.857	28	11.335.570	1	53.000	315	49.415.021

2013an, toki entitateek 313 kontratutan guztira 49,41 milioi esleitu zituzten. Kontratuen ehuneko 43 laguntzakoak izan ziren eta adjudikatutako guztizko zenbatekoaren ehuneko 27 egiten dute. Obra-kontratuek kontratu guztien ehuneko 38 eta guztira adjudikatutako zenbatekoaren ehuneko 49 egiten dute.

2013an, toki entitateen menpeko enteeek 13 kontratu esleitu zituzten, 5,09 milioi euroko guztizko zenbatekoan. Hona xehetasunak:

Kontratu-mota	Erakunde autonomoak		Sozietate publikoak		Partzuergoak		Guztira	
	ZK.	Esleitutakoaren zenbatekoa	ZK.	Esleitutakoaren zenbatekoa	ZK.	Esleitutakoaren zenbatekoa	ZK.	Esleitutakoaren zenbatekoa
Obrak			14	5.187.056	1	430.774	15	5.617.830
Laguntza	1	77.288	23	2.429.095	1	505.780	25	3.012.163
Zerbitzu-emakidak	1	3.599.607					1	3.599.607
Hornidura			15	4.026.100	1	55.740	16	4.081.840
Guztira	2	3.676.895	52	11.642.251	3	992.294	57	16.311.440

2013an esleitutako kontratu guztietatik, 52 kontratu –guztizkoaren ehuneko 91, 11.642.251euro– sozietate publikoei dagozkie. Orobat nabarmendu beharra dago erakunde autonomo batek esleitutako zerbitzu-emakidako kontratu bati dagokiola kontratuetan esleitutako zenbateko osoaren ehuneko 22.

2013an, toki enteeek eta haien parte hartutako erakunde autonomo, sozietate publiko eta partzuergoek 372 kontratu esleitu zituzten, eta kontratu horiek 65,73 milioi euroko prezioa izan zuten guztira.

Hona toki entitateek eta haien mendeko enteek egindako kontratuetan baliatutako esleipen-prozedura eta -irizpidea:

	Prozedura irekia.			Prozedura negoziatua			Prozedura mugatua		Lehia-elkarrizketa	Guztira
	Eskaintzarik onena	Preziorik merkeena	e.d.	Eskaintzarik onena	Preziorik merkeena	e.d.	Eskaintzarik onena	e.d.	Eskaintzarik onena	
Obrak	38	1	1	47	44	-	1	1	-	133
Laguntza	67	6	-	69	17	-	2	-	-	161
Zerbitzu-emakidak	22	-	-	-	-	-	-	-	1	23
Obra-emakida	-	-	-	-	-	1	-	-	-	1
Hornidura	20	4	-	21	7	-	2	-	-	54
Guztira	147	11	1	137	68	1	5	1	1	372

Kontratuen ehuneko 54 esleitu zen prozedura negoziatuaren bidez; kasuen ehuneko 36an eskaintzarik aldekoenaren irizpidea baliatu zen, eta gainerako ehuneko 18an, berriz, preziorik merkeenarena. Halaber, kontratuen ehuneko 39 esleitu zen prozedura irekiaren bidez, eskaintzarik aldekoenaren irizpidea baliatuta.

Azkenik, esleitutako 372 kontratuetatik, 17 obra-kontratu 600.000 eurotik gorakoak ziren; berderatzi hornidura-kontratu 450.000 eurotik gorako prezioan adjudikatu ziren; eta 35 laguntza- eta zerbitzu-kontratu 150.000 eurotik gorakoak izan ziren. Hona zenbatekoari erreparatuz gero garrantzitsuenak diren kontratu horien esleipenaren zenbatekoa:

Kontratu-mota	Kopurua	Esleipenaren zenbatekoa
Obrak	17	19.816.091
Laguntza	24	12.444.047
Zerbitzu-emakidak.	10	11.383.527
Herri lanen emakida	1	229.667
Hornidura	9	5.821.929
Guztira	61	49.695.261

VII. NAFARROAKO UDALETAN KONTABILITATE ANALITIKOA EZARTZEKO PROIEKTU PILOTUA

Azken urteotan, toki sektore publikoari buruzko araudia bereziki saiatu da hobetzen toki zerbitzu publikoen kudeaketa eta ente publiko horien kontu-ematean gardentasuna. Helburu horiek lortzeko tresnetako bat da kontabilitate analitikoaren ezarpena, modua egon dadin jakiteko zein den zerbitzu horien kostua, bai eta horien finantza-iraunkortasuna ere.

Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak eta Kontuen Ganberak elkarrekin garatu dute kontabilitate analitikoa ezartzeko proiektu pilotu bat, toki entitateek eman beharreko kontabilitate-informazioa hobetzeko tresna gisa. Kontuen Ganberak hala eskatuta, Nafarroako Parlamentuak proiektu hori ontzat eman zuen, toki zerbitzuen iraunkortasuna eta kudeaketa hobetzeko proiektu estrategikoa den aldetik. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak ere parte hartu du projektuan, bere Prestakuntza Planean sartu baitu, kostuen metodologia toki entitate-etako langileei ezagutzera emateko ikastaroetan hain zuzen ere.

Proiektuaren hasieratik beretik, aintzat hartu da Nafarroa bezalako erkidego txiki batean komenigarria zela toki entitateen esparruan inplikaturako erakunde publiko guztien sinergiak baliatzea halako lan konplexu bati ekiteko, nola baita toki sektore publikoan kontabilitate analitikoa erabat ezartzea, kostuei eta adierazleei buruzko Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailletza Orokorraren eta Espainiako Udal eta Probintzien Federazioaren metodologiari jarraikiz.

Lan hori 2013ko otsailean hasi zen, Noingo udalean kontabilitate analitikoaren ezarpen integralerako proiektu pilotu bat ezartzearekin. Udal horretarako kontabilitate analitikoko ereduaren pertsonalizazioa taxutu da orain, baina bukatu gabe dago oraindik horren informatizazioa.

Une honetan, honako udal hauek daude proiektuari atxikirik: Antsoain, Berriozar, Eguesibar, Erriberri, San Adrián eta Atarrabia, bai eta Mairagako, Moncayoko eta Jurramendiko mankomunitateak ere; Toki Administrazioiko Zuzendaritza Orokorraren asmoa da beste udal batzuk ere proiektu honi atxiki dakizkion.

VIII. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Honakoak dira 2013an toki sektore publikoak izan duen antolamenduari, fiskalizazioari eta egoera finantzarioari buruzko ondorio nagusiak:

- Toki sektore publikoa 703 toki entitatek osatzen dute: 272 udal, 348 kontzeju, 65 mankomunitate eta 18 udal-batasun. Toki ente horiek 124 menpeko ente sortu dituzte zerbitzuak emateko, eta 17 partzuergotan parte hartzen dute.

Oraindik ere bertan dirau Nafarroako Toki Administrazioaren antolamendu-egituraren berantolatze-faltaren arazoak; izan ere, egitura horrek herritarren egungo eskakizunak eta zerbitzuak ematerakoan kudeaketa publiko efiziente eta eraginkorrek uztartu behar ditu.

- Toki entitateek, oro har, beren kontuak Foru Komunitateko Administrazioari igortzeko legezko betebeharra betetzen dute. Hartara, udalen ehuneko 96k –haien populazioak guztizkoaren ehuneko 99,6 egiten du– eta kontzejuen ehuneko 83k –biztanle guztien ehuneko 73– 2013ko kontu orokorra igorria zuten.

- 2013an, 13 udal fiskalizatu ziren. Horien artean, Nafarroan biztanle gehien dituzten 11 udalak. Fiskalizatutako 13 udalen diru-sarrerak eta gastuak Nafarroako toki sektore publiko osoaren diru-sarreraren eta gastuen ehuneko 46 eta 47 egiten dute eta haien populazioak guztizkoaren ehuneko 58 hartzen du 2013ko urtarrilaren 1ean.

Fiskalizazioetan aurkitutako akats nagusiak honakoei buruzkoak izan dira: inbentario baloratu eta eguneraturik ez edukitzea eta aurrekontua ezarritako epeetan ez onestea.

- Finantza-egoera bateratuari dagokionez, diru-sarrera eta gastuak ehuneko sei eta ehuneko hiru jaitsi ziren 2013an, 2012ko datuekin alderatuta. Jaitziera-ehuneko hori ehuneko 30ekoa baino zertxobait handiagoa da, 2009ko datuekin alderatuz gero.

Aurrekontuko gastu eta diru-sarrera garrantzitsuenen osakerari dagokionez, funtzionamendu-gastuak 579,71 milioi eurora iritsi ziren; alegia, 2009an baino bakarrik ehuneko bi gehiago eta 2012an baino ehuneko bi gutxiago. Bestalde, tributu bidezko diru-sarrerak ehuneko bat jaitsi ziren 2009aren eta 2012aren aldean.

2013an, toki sektore publikoak 51,44 milioi euroko aurrekontu-superabit doitua eta 62,03 milioiko aurrezki garbia lortu zituen, bai eta eta gastu orokorretarako 138.68 milioiko diruzaintza-gerakina ere.

2013ko zor bizia 377,48 milioi eurokoa zen, eta toki enteeek beren diru-sarrera arrunten ehuneko 9,13ra bitarteko zorpetze-ahalmena zuten.

Toki sektorearen finantza-egoera 2013an saneatua bada ere, zeren eta aurrezki garbia izan baitzuen, zorpetze-ahalmenik eta aurreko ekitaldietako baliabiderik badago; bestalde, gastu ez finantzarioak egiteko eta zorpetzeko muga batzuk badaude, finantza-egonkortasuneko eta -iraunkortasuneko helburuek mugatua. Toki sektore publikoa, bere osotasunean, helburu horiek bete ginen 2013ko ekitaldian.

Hartara, 30,13 milioi euroko finantza-ahalmena lortu zuten eta zor bizia diru-sarrera arrunten ehuneko 55,55 egiten zuen, legez ezarritako eguneko 110eko mugaren azpitik.

- Nafarroako Tokiko kontabilitatea Toki Administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorraren arabera araututa dago. Plan egokitu hori 1990eko uztailaren 17ko Ministerio Aginduaz onetsi zen. Ez da araurik eman toki entitatearen eta haren menpeko enteen kontabilitatearen egoera-orriak bateratzeari buruz.

Honakoak dira Ganbera honek Foru Komunitateko Administrazioari eta Parlamentuari egiten dizkion gomendioak:

- *Nafarroako Toki Administrazioa arrazionalizatzeko eta berregituratzeko beharrezkoak diren neurri legegileak eta administratiboak lehenetsunez eta premiaz hartzea, toki entitateek beren zerbitzuak eraginkortasunez, merke eta kalitatez eman ditzaten eta helburu horretarako giza baliabideak eta baliabide finantzarioak izan ditzaten.*

Neurri horiek Nafarroako gizarte osoan eta haren botere publikoetan dute eragina; hori dela eta, adostasuna lortzen saiatu behar da, betiere herritarren borondatea eta zilegi diren interesak errespetatuz, eta lidergo politiko-instituzionala gauzatuz neurrian inplementatzean.

- *Tokiko kontabilitatea berritzea eta Kontabilitate Publikorako Plan Orokor indardunera egokitzea*

- *Toki entitateen eta horien merkataritza-sozietate publikoen kontularitza-egoerak sendotzeko metodologiari buruzko legezko neurri egokiak hartzea, toki sektore publiko osoak egindako jardueraren erabateko ikuspegia emateko helburuarekin.*

- *Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Finantza-iraunkortasunari buruzko 27/2013 Legeko 2. xedapenean Nafarroari eskumenak esleitze aldera ezarritako arau-garapenei ekitea.*

- *Behar diren prozedurak ezartzea Foru Administrazioak bete behar duen totoretza finantzarioa bete ahal dadin, Foru Komunitateko toki entitateei Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa aplikatzeari dagokionez.*

- *Toki entitateen erregistroa gaurkotzea sozietate publikoei eta tokiko fundazioei buruzko informazioarekin.*

- *Toki entitateek kontuak emateko duten legezko betebeharra betetzen dela bermatzeko tresnak sendotzea.*

Toki entitateentzako aholkuak:

- *Udal-ondasun eta -eskubide guztien inbentario balioztatua eta eguneratua egitea, eta ibilgetuaren kontuekin lotzea. Helburu horretarako, egokia litzateke inbentariorako programa informatiko bat diseinatzea, kontularitzarekin lotua, eta inbentarioaren kudeaketari buruzko prozedura orokorrak eta irizpide uniformeak definitzea eta haren mantentze-lana eta urteroko gaurkotzea egitea.*

- *Erakunde autonomoen eta udal merkataritza-sozietateen kudeaketa ekonomikoaren barnekontrola egitea, aplikatzekoa zaion legerian ezarritako hedapenarekin, hau da, kontuhartzaitzaren, finantzen eta eraginkortasunaren hiru ikuspegietatik.*

- *Lurzoruaren udal-ondarearen erregistroa sortzea eta bertan sarrerak eta irteerak modu justifikatuan sartzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legean ezarritako helburuetarako, eta lurzoruaren udal ondarea kudeatzea udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik.*

- *Toki entitateek beren burua antolatzeko ahalmena erabiliz, tokiko zerbitzu publikoak eraginkortasunez, ekonomiaz eta efizientziaz kudeatzeko antolamendu-egitura arrazoizkoena diseinatzea.*

- *Gaur egun Toki Administrazioan zerbitzu publikoen kostuen metodologia hobetzen jarraitzea eta erabakiak hartzeko kudeaketa-adierazle baliagarriak definitzea.*

- *Aurrekontua eta kontu orokorra ezarritako epeetan onestea. Halaber, kontu orokorra onestea zuzen formulaturik baldin badago. Onesten ez bada, kontu horrek kudeaketa ekonomikoa ez islatzeko arrazoiak eman beharko dira.*

- *Balorazio-ponentzietarako epea gaurkotzea.*

- *Kontuak emateko legezko betebeharra betetzea.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2015eko ekainaren 16an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas